



Literaturaz gozatzeko ikasi egiten da, eta ikas prozesu hori landu behar da gelan

Katixa Dolhare-Zaldunbide

Bankan bizi den Literatura irakasle, ikerlari eta idazlea da. Irailaren hondarrean Itsasun egin zen *Irailekoak* poesia jaialdiaren baitan *Ipar Euskal Herriko Poesiaz* eman zuen hitzaldia. Besteak beste, bertan errandakoak hona ekarri nahian hasi gara harekin solasean.

 MADDI SARASUA LASKARAI  SABINA HOURCADE / ARGIA CC-BY-ND

Hitzaldian aipatu duzu Itxaro Borda dela Ipar Euskal Herriko poetarik emankorrena.

Bai, hala da. Olerkigintzan ausartu da forma tradizioaletik biziki urrun joaten, jostatzen da arrisku izigarriak hartuz, nahasketa handiak ekarri hizkuntzekin, soinuekin. Eta ordura arte nehun ikusten ez ziren gaiak agerrarazten ditu: emazteen arteko maitasuna, kezka sakonak bizitzari begira, gauza biziki finak. Frogatua du nahi dena erraten ahal dela, nahi den bezala, euskararekin. Uste dut idaztean hartzen duen libertate eta poz hori, nabari dela eta beldur gabe, bere bizipen intimoenetik aipatzen ditu gaiak.

Zein dira ezagutarazi behar liratekeen beste olerkari batzuk?

Baitezpadakoetan, erran dezakegu, Iratzeder. Iratzederrek anitz idatzi du. Egia

da bere olerkia otoitza dela, fraile zen, esperantzaz betea jainkoaren eta etorkizunaren baitan. Horregatik, beharbada, gaur egun ez da halako modan izanen, baina badu ikaragarriko estilo ederra, jostakina hitzekin, biziki airoa. Naturaren edertasunaren aitzinean erakusten duen lilura eta miresmena biziki hunkigarria da. Beharrik, bizitza ez baita bakarrik etsipena, gerla eta ezkorra. Eta harek landu du bizitzaren alde argi hori. Ene ustez, Iratzeder Ipar Euskal Herriko poeta handienetakoa da.

Baita Manex Erdozeintzi Etxart ere, bereziki maisua da. Haren poesian badira kezka sozialak. Beti gazteria zuen gogoan, bizitza aldatzen joaten zela, 1970-80-90 hamarkada horietan. Eta harek ere, ukatu gabe zailtasunak eta bizitzaren nekeziak, esperantza ezartzen du gazteriaren baitan, herriak etorkizun zoriontsua izan dezakeela amestuz.

Beste bat ezagutzekoa: Eñaut Etxamendi. Bere kantuen bidez ezaguna. Kantuek iduri dute biziki sinpleak, baina sinpletasun hori biziki landua eta zaindua da. Engaiamendu soziopolitikoak ezagun da, baita sentimendu barnerkoiak ere. Maitasuna. Harek ere esperantza gazteriarengan, eta amultsutasun handia jendearendako. Biziki hunkigarria da haren obra.

Horiek nagusiak erran nezake. Bada ere Jean Louis Davant. Zazpi olerki bilduma idatzi ditu, denetarik: naturari buruz, Euskal Herriko figura historiko nagusi batzuen inguruan, bizitzari buruzko kezka handiak aipatuta.

Eta Daniel Landart?

Baita ere. Hogei urtetan idatzi zituen olerkiak, Anje Duhalde eta Mixel Ducauk musikatu zituztenak, Akelarre eta Errobi taldeen bidez ezagutzen ditugu.

Oihu handiak gazteriak egiten dituenak lantegietako baldintzei buruz, eta klase sozialei buruz.

Bere garaikoa baita ere, Manex Pagola, bere olerkiak kantatu dituenak, harek ere euskaltasuna, herria eta gazteria gogoan idatzi duena.

Hitzaldian Mari Jeanne Minaberri ere aipatu duzu olerkari gisa.

Mari Jeanne Minaberri ezagutua da bere poesia didaktiko eta narratiboari esker, haurrei zuzendua delako. *Xoriak kantari*, ezaguna dena Oskorriren diskoaren bidez. Baina baditu beste olerki batzuk ere. Badira bera bezala beste perla batzuk, Henriette Aireren *Egiaren egarriz*, amatasunaz eta aitatasunaz gogoetatzen zuena 1989an. Oldartzen zen garai hartako gizartearen konbentzio sozialen eta jendartearen begiradaren kontra. Biziki hunkigarria eta biziki gaurkoa ere bai.

Beste perla bat Maddi Pelot da, ezaguna dena zientzia fikziozko ipuinengatik, baina olerkiak ere idatzi ditu. Egia erran, pixka bat hermetikoak edo zailak ulertzeko, sinbolistak, baina zergatik ez euskaraz ere poesiaren mugak arakatu? Bere baitako kezkak ere nabari dira, heriotzaren beldurra eta guztiok ditugun izuak edo alde ilunak aipatzen ditu poemetan. Aurelia Arkotxaren *Atari ahantziak*, horiek poesia eruditoak dira, erreferentziaz beteak, mitologia greko latinoari edo Bibliari edo lehengo testu zahar batzuei.

Jon Mirande...

Nahiz eta pertsona polemikoa den, bere idazteko manera zirrargarria da. Dituen gaiak okaztagarriak dira, menturaz egun zentsuratua litzateke, ohartzekoa da 1970-80etako hamarkadetan horrelakoak publikatzen ahal zirela. Gorrotoa eta herra mundu guziarekiko, nik ikusten dut pertsona patetikoa, gaizki izate handi bat, bere buruarekiko gorrotoa.

Gero badira olerkari isilak ere, ez direnak hainbeste aitzinean ezartzen. Agustin Zamora eta bere bildumak. Olerki laburrak dira, une iragankor bat bertierekotu nahiko luke. Jakes Ahamendaburu, bere lehen liburuak *Isilka misilka* izena du. Harek esploratzen du bere intimitate pertsonala. Isila ere, edo aspaldian publikatu ez duen bat, Jon Casenave, maitasun olerkiak publikatu zituen *Zutaz amoroski* eta *Ordu alferren segida*.

Bitxikerietan, Txomin Peillenen olerkiak aipatzen ahal dira, biziki intelektualistak. Gogoan ditugu poema orien-

talistak. Abdel Kaderren goraipamen epikoa egiten dutenak. Erik Disarry ere aipatzekoa da, poesia kontzeptuala egiten duena, lotua arte garaikideari. Emaitza baino prozesua da interesgarria, arte garaikidean bezala.

Ipar Euskal Herriko poesia gaur egun hilzorian dela erraten ahal genuke? Zahartua dela?

Xalbador izan zen gure modernitatea abiarazi zuena Ipar Euskal Herriko oler-

kigintzan. Alde batetik, erraten ahal dugu baietz, hilzorian dela, irakurle hain segur arrunt guti delako, olerkari arrunt guti. Eta 50 urtez petiko olerkaririk ez baita; zeu salbu, Maddi, aurten frogatzen duzu aurkakoa.

Beharbada badira beste poesia mota batzuk bertsozintza, kantagintza edo raparen bidez gizarteratuak izanzen direnak, eta horretan poesiak atzematen du bide berri bat. Alde horretatik ez da erraten ahal arrunt desagertua dela.





“ ”

***Lehentasuna euskal
hiztunak formatzeari
ematen zaio (...)
Euskaran pasatzen
ahal dituzu kolegioko
urteak Espainolean
Cervantes edo Ingelesez
Shakespeare irakurri gabe***

Adibidez, iduritzen zait Odei Barrosoren testuak arrunt poetikoak direla; erran nahi dut, zainduak, landuak, soinu eta erritmo jokoak, ahots liriko berezi bat ezagun da, arrangura sakonekin, bilaketa batean dabilena. Ene ustez poesiaren oinarria hori da.

Maiatz eta Hatsa-ren poesiak ere aipatu behar genituzke, Ipar Euskal Herriko olerkigintzan ekarpen garrantzitsua egiten dutenak. *Hatsa*-ren poesiak urte guztiz argitaratzen du liburu bat, olerkari ugariren poema inedito zenbaitzuk bilduz. *Maiatz* aldizkariaren laurogei bat zenbaki badira kasik eta horietan ere badira altxorrrak. Baina liburu horiek ez dira interneten atzematen, Ipar Euskal Herrian ere

ez da liburutegirik ale guztiak dituenik. Nola agerian ezarri Ipar Euskal Herriko poesia hori? Nire ustez gizarteratu beharko litzateke, poesia errezitaldiak eginez, beharko liriateke lan akademiko gehiago testu horiei buruz, master lanak, tesiak, mintzaldiak...

Transmisioa bai etxetan eta bai eskoletan ahal dela ere aipatu duzu. Zuk hurbiletik landu duzun gaia da, literaturaren irakaskuntza.

Bigarren Hezkuntzan literatura guti lantzen da, lehentasuna hiztunaren formatzeari ematen zaio. Europako marko erreferentzia horren baitan hori da helburu bakarra: hiztunak formatzea. Gure testuinguru soziolinguistikoak ere horretara eramaten ditu irakasleak lehentasunez. Baina hiztunak formatzeko kulturarik eta literaturarik transmititu gabe, zer zentzu ote du?

Konparaketa egiten bada, frantses klasean kultura, literatura eta hizkuntza dena bat da, kosmobisio bakarra. Hizkuntzaren lanketa linguistikoa, literarioa eta kulturala, baita literatura unibertsala ere, dena sartzten da frantses klasean. Izgarri nabari zaigu kontrastea euskara kurtsoekin. Behintzat mugatzen bagara akademikoki galdegina zaigunari, bakarrik hiztunak formatzera, gainera helburu linguistiko apalekin. Arrunt desorekatua da. Frantsesean behar dituzte 24 obra literario oso irakurriak eta landuak izan kolegioan (11tik 15 urte ingurura). Lizeoan, literatura oraino presentegoa da, bai haur eta gazte literatura

eta bai literatura klasikoa, XVI. mendetik XIX.era bitarteko lan mardulak programan dira eta landu behar dira baitezpada. Aldiz, euskaran edo beste hizkuntzetan pasatzen ahal dituzu kolegioko lau urteak Espainolean Cervantes edo Ingelesez Shakespeare irakurri gabe, zatika ere ez. Irakasle batzuk sentsibilizatuak dira horri eta saiatzen dira literatura sartzten klasean. Baina bada lan irakasle ak formatzeko literaturara.

Zer ekarpen egiten du literaturaren lanketak gazte eta haurrengan? Zergatik landu, eta zertarako?

Literaturaren bidez dena lantzen da. Lantzen da hizkuntza, hizkuntzak balio du pentsatzeko, gogoetatzeko, izpiritu kritiko garatzeko. Sormena ere bai, irudimena, hizkuntzaren bidez jostatzea soinuekin, hitzekin, kontzeptuekin, irudiekin. Horrek egiten du gero hiritar argituak eta heldu sendoak izanen direla. Gainera, literaturaren bidez erdiesten da historia, baina alde humanotik. Historia eskolak gertakarietan eta datetan tematzen dira, gertaeren hurrenkeran. Aldiz, literaturaren bidez, pertsonaia baten bizipenetik bizi duzu gertakaria. Berdin geografikoki: mundua nolakoa den, jendea nola bizi den jakiteko, ez du parerik literaturak. Ikasten ahal duzu badela hainbeste migrazioa eta abar, baina irakurtzen duzularik *Miñan* inpaktu gehiago ukanen du, bihotza eta izpiritua hunkiko baititu.

Horrez gain, psikologikoki eta afektiboki lagunduko du norbera loratzen, ikasten eta bere burua hobeki ikusten.



Ikusten zein konplexua den gizakia eta norberak ere baduela horrela sentitzea, konplexutasun hori asumitzea eta hau-tuak egitea gero bizitzan. Orduan, lite-raturaren bidez iduritzen zait funtsezko helburuak lantzen direla, haurrak haz-ten lagundu nahi baditugu.

Nola egin literaturaren lanketa hori gelan?

Egia da anitzek erranen dutela, eta arra-zoiekin, zail dela, haurrek ez baitute hizkuntza mailarik. Baina gauza bera gertatzen da hizkuntza nagusiekin ere: frantsesean ere ikasle guztiak ez dira gai obra klasikoak irakurtzeko burutik buru. Garatu dira hainbat teknika didaktiko eta pedagogiko, audio-liburuak, kurtsoak prestatzeko manierak, testu hautaketa nola egin, pertsonalizatuz edo moldatuz. Estilistikoki landu, loturak eginez beste gaiekin, testuen artean. Ene ustez gau-za anitz bada ikasteko frantses literatu-raren klase didaktizaziotik; hortik ikasi behar genuke. Aldatzeko ikus-entzuneko dokumentuetatik. Bereziki azken urte hauetan, tematzen da berriz frantses es-

parruan, obra oso eta klasikoan irakur-ketan klasean. Eta programekin batera hainbat baliabide didaktiko eta forma-kuntza atera dira. Guk ere horretan oi-narritu beharko genuke, nahiz eta obra kanonikoak ez ditugun oraino finkatuak gure artean. Baina haurrak atera daite-zen hezkuntza sistematik idazle nagu-siak eta obra nagusiak ezagutzuz, eta irakurri izanik, beharbada ez 24 obra, baina hamabi baldin bada ere bikaina litzateke. Irakurriak eta landuak, eta barneratuak.

Numerikoaren edo digitalaren garaiak zailtasunak ekartzen ditu horretan?

Irakurketa ariketa bat bilakatua da, on-tsalaz ariketa testuaren azterketa izan beharko litzatekeelarik. Ene ustez lotu behar gatzazkio arazoari eta asmatu progresioak pixkanaka. Zenta ikusten da klase ttipiogoetan loriatzen direla ale-giekin, kantuekin... eta baliatzen baga-ra haurrek duten bizipoz eta jakin-min horretaz, saiatzen ahal gara urrunago eramatera. Saiatzen ahal gara gero nera-bezaroan ere atxikitzen.

Kantua ere aipatu duzu. Kurtsoetan kantatu beharko litzateke?

Anitzetan pentsatzen dugu kantatzea bakarrik eskola ttipietarako dela, eta pena zait, kolegio, lizeo eta uniber-tsitatean ez baita gehiago kantatzen. Bizkitartean kantuaren bidez trans-mittitu delarik olerkigintza anitz. Jen-de gehienak maite du kantatzea. Eta pena da pentsatzea bakarrik haurrek kantatuko dutela. Eta antzerki egi-teak, kantuz aritzeak, ene ustez bizi-tasuna ematen dio eta manera bat da literatura gizarteratzeko.

Literaturak sorkuntzara ere eramaten du.

Bistan da, mila ariketa badira, berehala liburuan sartu aitzin ematen ahal die-zu gaia, eta ea zer erran dezaketen. Ea idazle horrek gero zer erran duen. Mo-tibatzen ahal dira idazketaren bidez; segur da, maite dute hori. Poesia aur-kezten baduzu joko gisa, soinuekin eta errimekin, hastapenean uzkur izanen dira, baina gero sartuko dira, lotuko. Esperientzia onak izan ditut beti. Hi-tzekin jostatzea maite dute azkenean. Idazketaren bidez sormena lantzeko bikaina da.

Ohartu naiz literaturari usatuak ez diren ikasle batzuek ez dutela ikusten istorioa beren buruan, eleberri bat irakurtzen dutelarik ez dute ikusten ger-taeren filma. Haien buruan beltz-bel-tza da, ez dute irudimenik. Irudimena lantzen da. Literaturak galdegiten du ezagutzea ez bakarrik hizkuntza, baita kode erretoriko eta estilistiko batzuk ere, erreferentzia batzuk izatea, loturak egiteko. Ez da berez horrela jite bat, li-teratura gozatzen ikasten da, eta ikas prozesu hori landu behar da gelan. Ez badute horrelako ibilbiderik izan, ez dute irudirik izanen batzuek. Eta hori maiz ikusten dut parekatzen ahal dela bizitzarako ere duten anbizio eskasa-rekin, irudimen eskasarekin. Bakarrik inguruan dutenaren errepikapenean izanen dira, beste gogoetarik gabe. ●

BABESLEA:

346.171 biztanleko lurgune euskalduna

111 udal

Arnasa gara

EUSKARAZ GARA

“Beti lurpean eta bazterretik zatozen erreka horri, zuri, itsasoa zor dizugu, justizia zor dizugu, ausardia zor dizugu, etorkizuna zor dizugu. Eta gure lo kanta berrie-kin amets egingo duten haur jaioberriak esnatu daitezela euskararen herrira”.

Jon Maia Soria

